

## TSE-ZTF mintegiak: Euskara akademikoa lantzen eta harmonizatzen

Zientzia eta Teknologia Fakultateak, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailarekin batera, ZTFn erabiltzen dugun **euskara akademikoa lantzen eta harmonizatzen** laguntzeari begira diseinatutako **etengabeko formaziorako eta zientzialari euskaldunen arteko lankidetzarako azpiegitura** jarriko du abian.

“TSE-ZTF mintegiak: Euskara akademikoa lantzen eta harmonizatzen” azpiegitura **ZTFko kideei** zuzenduta dago, bai **irakasle-ikertzaileei**, bai lan akademikoak euskaraz idazteko asmoa duten **master-** eta **doktoretza-ikasleei** ere.

### PARTE-HARTZE MOTAK

**A MODALITATEA:** Euskara akademikoaren gakoak gure kasa lantzeko baliabideetarako sarbidea. Egelapi plataforma batean jarriko dira baliabideak: txostenak, bideoak, kontsulta-baliabideetarako estekak, galdetegiak...

**B MODALITATEA:** Egelapi plataforman jarriko diren baliabideetarako sarbidea ez ezik, 22-23 ikasturte osoan zehar eskainiko diren **mintegi laburrak** eta **egiteko zereginak** eskainiko zaizkie. Mintegiak hilabetean behin edo birritan eskainiko dira, asteazkenetan (12:00-14:00), **irailaren 7an hasita**.

### MODULUAK eta EGUTEGIA

- 1. MODULUA:** Hizkuntzen kudeaketa ingurune akademiko eta profesional eleaniztunean. Testu-generoak eta erregistroak. Laguntza-tresnak eta kontsulta-baliabideak: ortografia-zuzentzailea, itzultzaile automatikoak, hiztegiak eta datu-base terminologikoak, testu-corpusak.  
(2022ko irailaren 7an)
- 2. MODULUA:** Euskara estandar zaindua eta erregistro akademikoak.  
(2022ko urriaren 5ean)
- 3. MODULUA:** Testualtasun-baldintzak eta puntuazioa testu akademikoetan.  
(2022ko azaroaren 2an)
- 4. MODULUA:** Fraseologia akademikoa: diskurtso-formulak eta kolokazioak.  
(2022ko abenduaren 14an)
- 5. MODULUA:** Aditzak testu akademikoetan.  
(2023ko urtarrilaren 11an)
- 6. MODULUA:** Hiztegi-sorkuntzarako bideak eta hizkuntza-ukipena.  
(2023ko urtarrilaren 25ean)
- 7. MODULUA:** Eratorpena eta prozesu mugakideak testu akademikoetan.  
(2023ko otsailaren 8an)
- 8. MODULUA:** Hitz elkartuen osaera eta idazkera testu akademikoetan.  
(2023ko martxoaren 1an)
- 9. MODULUA:** Nominalizazioa eta izen-sintagma konplexuak testu akademikoetan.  
(2023ko martxoaren 29an)

- 10. MODULUA:** Erdal adjektibo erreferentzialen euskal ordainak.  
(2023ko apirilaren 26an)
- 11. MODULUA:** Terminologia-aldakortasunaren kudeaketa: estandarizazioa vs harmonizazioa.  
(2023ko maiatzaren 17an)
- 12. MODULUA:** Ahozko komunikazio akademiko multimodala: baliabide erretorikoak, fonikoak eta ez-berbalak. Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ).  
(2023ko ekainaren 14an)

## LAN-KARGA

**Modulu bakoitza:** aurrez aurreko saioa (2 ordu) + lan pertsonala (3 ordu) = 5 ordu

**GUZTIRA:** (12 modulu) = 60 ordu

## MODULU BAKOITZEAN ESKAINIKO DIREN BALIABIDEAK

- Txosten nagusia
- Gaiarekin lotutako bestelako dokumentuak
- Kontsulta-baliabideen estekak
- Bideoak
- Gaia lantzeko galdetegiak
- Moduluko zereginak: norberaren materialak gainbegiratzea eta moduluan landutako elementuak zuzentzea.

## FOROAK

Foro orokorra (A eta B modalitateetako parte-hartzaileentzat)

Mintegien foroa (B modalitateko parte-hartzaileentzat)

## EBALUAZIOA

A MODALITATEA: Ez da ebaluatuko eta ez da egiaztagiririk egingo.

B MODALITATEA: Ebaluatu egingo da eta egiaztagiria egingo da bukaeran. Hauek dira ebaluatuko diren zereginak:

- Aurrez aurreko saioetan parte hartzea
- Galdetegiak egitea
- Moduluko zereginak egitea.